



## FUNTZEZKO ELKARTEAK

### ➤ Arropa biltzeko prozesuan hainbat elkarte eta enpresekin aliatuko gara:

Bilboko alde zaharrean dagoen **bigarren eskuko dendaren** arroparen jabea taldearen laguna da, beraz berarekin kolaboratuko dugu. FFF-ren bidez (Friends, Family and Fools) ehunen eta arropen gastuak kubrituko ditugu.



**Micolet** bigarren eskuko arropa saltzen duen online denda bat da. Bertan, arropa mota ia berriak erosi ahal dira, modaren arabera. Online ere saldu daitezke erabiltzen ez diren arropak, haiek arduratzen dira prozesu guztiaz. Bigarren eskuko arropa saltzen duen katerik ospetsuenetako bat da herrialde mailan, eta ezagun egin da, kontsumo jasangarriago baten tedentziari hasiera emanez. Horregatik, merkataritza honekin lankidetzan aritzea funtsezkoa da, elkarri laguntzeko, antzeko proposamen bat baitugu.

**Koopera** ekonomia sozial eta solidarioko erakundeen sarea da, **Cáritas**-i lotutakoa. Ingurumen-zerbitzuetako, berrerabilpeneko, kontsumo iraunkorreko eta helburua betetzen lagun dezaketen beste zerbitzu batzuetako enpresa-jarduerak garatzen dituen sare bat, prestakuntza eta enplegua gizarteratzeko tresna gisa hartuta, gizarte ekologikoagoa, inklusiboagoa eta solidarioagoa eraikiz.

Berrerabiltzeko plantek jendeak edukiontzietan, garbiguneetan eta halakoetan uzten dituzten materialak prozesatzen dituzte. Bigarren eskuko Koopera Store dendetan eskuragarri berrerabilitako gaiak, eta bertatik dohaintzak egiten dira gehien behar dutenentzat; dagoeneko 7.000 dohaintza baino gehiago. Gainerako gaiak berrerabili, birziklatu edo prozesatu egiten dira energia ekoizteko.





Elkarte eta enpresa hauek eskuratzen duen jantzien eta ehunen zati bat erabiltzen ditugu. Horrela, gure diseinu berriak egingo ditugu. Horren truke, gure diseinu batzuk emango dizkiegu haien dendetan saltzeko eta horrela haien bezeroak gure enpresa ezagutzeko ere.

### ➤ **Hainbat ekimen bultzatuko ditugu:**

**SlowFashionNext**, **Fashion Revolution** edo **Greenpeace** bezalako erakundeek kontsumitzaile informatuago eta kezkatuago baten sorrera bultzatu dute. Ehungintza-industria nazionalak kontsumitzailearen pentsamoldea aldatzeari ere erantzun dio, kontzientziazio-ekimenak, hala nola Adolfo Dominguezek erabili eta botatzeko modaren aurka egindako "Se más viejo" kanpaina, edo Ecoalf, Ternua edo Skunfunk bezalako markak, jasangarritasuna bihurtu dutenak prozesu guztien erdigune.

### ➤ **Garraiorako:**

Enpresa online denez (eCommerce) garraiorako, Ako Pako Transports (APT) logistika enpresarekin lan egingo dugu. Enpresa honek, atal berezi bat du online dendetatik egite diren enkarguak entregatzeko. Talde honekin lan egitea erabaki dugu, gure komentzio motarekiko hainbat erraztasun eskaintzen dituelako

